

aLeKa

TOLOSAKO UDAL ALDIZKARIA | 2024ko uztaila

02-09

**20 DIRULAGUNTZA
LERRO**

20 líneas
subvencionales

10

**ETXEZ ETXEKO
LAGUNTZA ZERBITZUA**

Servicio de ayuda
a domicilio

11

**ALDE ZAHARREKO
PINTAKETEN GARBIKETA**

Limpieza de pintadas
de la Parte Vieja

15

AGENDA



**DIRULAGUNTZEN
INGURUAN
JAKIN
BEHARREKOAK**



1.000.000 € 20 DIRULAGUNTZA LERRO

g

Tolosako Udalak milioi bat euro bideratuko ditu herritarrei eta herriko eragileei zuzendutako aurtengo dirulaguntza deialdi bateratuaren bitartez.

uztira 20 dirulaguntza lerro dira, Etxebizitza, Gizarte Zerbitzu, Hirigintza, Euskara, Kultura, Berdintasun, Hezkuntza, Merkataritza, Enpresa eta Kirol arlokoak.

- Dirulaguntza berriak: kirol instalazioen grebak kirol taldeei eragin zizkien eraginak arintzera edota katalogatutako eraikinak berritzera bideratutakoak.
- Aldaketa esanguratsuenak, hirigintzari lotutakoak: bikoiztu baino gehiago egin da eraikinak birgaitzeko laguntzetara bideratutako diru kopurua: 120.000 eurotik 300.000 eurora igo da. Eskatzaile bakoitzak jasoko duen kopurua ere altuagoa izango da, bai azken kasu honetan, baita beste kasu batzuetan ere; hala nola etxebizitza alorreko dirulaguntzetan (alokairuan eta birgaitzean), eragile sozialei bideratutako laguntzetan edota berdintasuna sustatzeko jardueretara bideratutakoetan.

El Ayuntamiento de Tolosa destina un millón de euros a la convocatoria conjunta de subvenciones de este año dirigida a la ciudadanía y agentes de la localidad.

20 las líneas de subvenciones, en materia de vivienda, servicios sociales, urbanismo, euskera, cultura, igualdad, educación, comercio, empresa y deportes.

Se han creado nuevas subvenciones e introducido cambios significativos en el área de urbanismo.



EUSKARA

EUSKERA

Hiru laguntza lerro nagusi: euskara ikasteko, hizkuntza paisaia euskalduntzeko eta lan arloan euskararen erabilera sustatzeko.

Euskara-ikasle tolosarrentzako dirulaguntzak.

Para tolosarras que que estudian euskera.

54.000 €

Euskaltegian euskara ikasteko edo maila hobetzeko dirulaguntzak dira, 16 urtetik gorako tolosarrei zuzenduta (Aitzol Udal Euskaltegian nahiz beste euskaltegiren batean aritu diren tolosarrei). A1, A2, B1 eta B2 mailetan, %75; C1 mailan, %50; eta C2 mailan, %25.

Establezimendu komertzialetako hizkuntza-paisaia euskalduntzeko.

Para euskaldunizar el paisaje lingüístico de establecimientos comerciales: rótulos, toldos, vehículos comerciales, webs...

3.000 €


Tolosako establezimenduei zuzendutako dirulaguntza da, elementu ezberdinetan euskara eraibili dezaten: Kanpoko errotuluak, toldoak, ibilgailu komertzialak, webguneak, irudi korporatiboko elementuak (bisita-txartelak, poltsak...), aplikazio informatikoak...

Lan-arloan euskararen erabilera sustatzeko dirulaguntzak.

Para fomentar el uso del euskera en el ámbito laboral.

6.000 €

Tolosako enpresei bideratutako dirulaguntza. Diruz lagunduko dira euskara-maila handitzeko ikastaroak, hizkuntza-ohiturak aldatzen laguntzeko jarduerak eta sentsibilizazio-jarduerak.



HIRIGINTZA

URBANISMO

120.000 eurotik 300.000 eurora haziko da diru poltsa.
La cantidad destinada a las subvenciones asciende de 120.000 a 300.000 euros.

Bizitegi eraikin kolektiboak birgaitzeko, sendotzeko zein irisgarritasuna hobetzeko eta etxebizitzak egokitzeko obretarako dirulaguntzak dira.

Subvenciones para la rehabilitación de viviendas y edificios residenciales.

300.000 €

Sei laguntza lerro

Seis líneas de ayuda

1. Irisgarritasuna hobetzeko instalazio eta obretarako (igogailuak, arrapala eta plataformak...).

Para instalaciones y obras de mejora de la accesibilidad (ascensores, rampas y plataformas...).

2. Inguratzailearen energia-eraginkortasuna hobetzea (teilatua edo fatxada).

Mejora de la eficiencia energética de la envolvente (tejado o fachada).

3. Eraikinaren egiturazko elementuak sendotzeko (karga-hormak, segurtasuna...).

Consolidación de los elementos estructurales del edificio (muros de carga, seguridad...).

4. Katalogatutako eraikinen (artean Alde Zaharra) inguratzaile eta fatxadako elementuak hobetzea (balkoiak, fatxadako barandak, apaingarriak, instalazio komunak eta abar zaharberritzea).

Mejora de la envolvente y elementos de fachada de edificios catalogados (por ejemplo, edificios de la Parte Vieja: restauración o sustitución de miradores o balcones, barandillas, elementos decorativos o instalaciones comunes...).

5. Kanpoko arotzeria aldatzea (energia eraginkortasuna eta isolamendu akustikoa hobetzeko).

Cambio de carpintería exterior (que mejoren la eficiencia energética y el aislamiento acústico).

6. Mugikortasun mugatua duten pertsonen eta 65 urtetik gorakoen etxebizitzak egokitzeko (komunak, sentsoreak...).

Adecuación de viviendas para personas con movilidad reducida y mayores de 65 años (inodoro, puertas de paso, sensores...).



ETXEBIZITZA

VIVIENDA

Bi laguntza lerro nagusi: alokairuaren ordainketa errazteko, eta etxebizitza hutsak eraberritu eta alokairu soziala sustatzeko.

Alokairurako dirulaguntzak.

Ayudas para el alquiler.

81.400 €

(agortuko balitz, 20.000 € gehiago bideratuko dira).

Dirulaguntza bakoitzaren zenbatekoa handitu da: hilabetearen 250-300 euro ziren orain arte, eta orain, 300-350 euro.

Se incrementa la cuantía de cada subvención pasando de 250 a 300 euros mensuales a 300-350 euros.

Etxebizitza hutsak eraberritu eta alokairu soziala sustatzeko.

Para el fomento del alquiler social a través del programa de ayudas para la reforma de viviendas.

70.000 €

(agortuko balitz, beste 70.000 € gehiagorekin osatuko da poltsa).

Dirulaguntza handitu da: Alokabidek eskatutako obraren zenbatekoaren % 50, gehienez 6.000 € (lehen 4.000 €), edo Alde Zaharrean dauden etxebizitzaren kasuan, 12.000 € (lehen 8.000 €).

Etxebizitzak Bizigune programan izena emanda egon behar du, eta jabetzaren konturako obrak egiteko laguntza ekonomikoak dira.

Se incrementa la subvención: un 50 % del importe de la obra solicitada por Alokabide hasta un máximo de 6.000 € (antes 4.000 €) o 12.000 € en el caso de viviendas situadas en la Parte Vieja (antes 8.000 €).

MERKATARITZA

COMERCIO

Bi laguntza lerro, tokiko merkataritzara bideratuta: bat, enpresa eskualdaketak sustatzeko, eta bestea, ekimen berriak abiarazteko.

Berriz Tolosa: negozioen arteko eskualdaketa sustatzeko.

Subvenciones para el traspaso entre negocios.

45.000 €

Tolosako negozio baten ardura hartu nahi duten pertsonentzako laguntzak dira, alokairu edo lokalaren erosketa gastuetarako. Alokairu gastuetarako 25.000 € bideratuko dira; erosketa gastuetarako, berriz, 20.000 €, eta hiru urterako dirulaguntzak dira.

Ekin: Tolosan enpresa ekimen bat abiarazteko.

Ayudas para la puesta en marcha de una iniciativa empresarial en Tolosa.

80.000 €

Enpresa ekimen berriak sustatzeko laguntzak dira, lokalak alokatzeko, erosteko eta birgaitzeko. Guztira, 20.000 € bideratuko dira birgaitze eta erosketa gastuetara. Alokairu gastuetara, berriz, 60.000 €. Hiru urterako dira dirulaguntzak dira.

Birgaitzeak Alde Zaharrea koka-tuta dauden saltokietan bakarrik lagunduko dira.



KIROLAK

DEPORTE

Lau lerro dira. Horietako bat berria da, kirol instalazioen grebaren eragina arintzeko sortu dena. Kasu guztietan, eskaerak eta memoriak aurkezteko epea luzatu egin da.

Kirol elkarten urteko jardueretarako eta egiturak sendotzeko.

Subvenciones para actividades y estructuras anuales de las agrupaciones deportivas.

18.000 €

Eskola Kirola kudeatzeko egitura espezifikokoak sortu eta garatzeko.

Subvenciones para la creación y desarrollo de estructuras de gestión del deporte escolar.

50.000 €

Kirol jarduera bereziak antolatzeko.

Subvenciones para la organización de eventos deportivos especiales.

10.000 €

Tolosako kirol klub eta taldeei kirol instalazioetako grebak izandako eragina arintzeko ezohiko dirulaguntzak.

Subvenciones para paliar el impacto de la huelga de instalaciones deportivas.

50.000 €

Usabal itxita egon zen garaian kirol taldeei sortutako ondorio ekonomikoak konpentsatzeko laguntzak dira. Herritik kanpoko instalazioak erabili behar izateagatik sortutako gastuak (desplazamenduak, erreserbak...) edota kirol eskoletan galdutako parte hartzaileen ondorioz kuotetan izan dituzten galerak sartzen dira laguntzaren barruan.

Se trata de ayudas para compensar los efectos económicos generados a los clubes deportivos durante el cierre de Usabal: gastos derivados de la utilización de instalaciones fuera de la localidad (desplazamientos, reservas)...



TRAMITAZIOA

TRAMITACIÓN

Prozedura arintzeko urratsak egin dira, eta, aldaketei esker, aurrera begira errazagoa izango da dirulaguntzak izapidetzeko prozesua, bai Udalarentzat, baita eskatzaileentzat ere.

Se han dado pasos para agilizar el procedimiento administrativo de las subvenciones. Los cambios permitirán que en adelante la tramitación sea más sencilla y ágil, tanto para el Ayuntamiento como para las personas solicitantes.

NOLA ESKATU DIRULAGUNTZAK

CÓMO SOLICITAR UNA SUBVENCIÓN

1 DEIALDIAREN INGURUKO INFORMAZIOA

Udalaren Egoitza Elektronikoa daude dirulaguntzak eskatzeko eskaera orrien ereduak eta bertan zerhaztuta daude eskaera orriarekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak.

2 AGIRIAK NON ETA NOLA AURKEZTU

Pertsona fisikoek UDATEn, posta bulegoetan, indarrean dauden xedapenetan ezarritako beste edozein tokitan edo erregistro elektronikoa bidez aurkez ditzakete. Erakunde edo pertsona juridikoek, berriz, nahitaez Erregistro Elektronikoa bidez aurkeztu beharko dituzte eskaerak eta justifikazioa.

3 JUSTIFIKAZIORAKO AGIRIAK

Dirulaguntza eskatu ondoren, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira: jardueren memoria, balantzea, faktura/nominak eta ordainagiriak.

Accede a la guía de instrucciones para solicitar y justificar las subvenciones municipales.

En la guía encontrarás información sobre la convocatoria, el lugar y forma de presentación de la documentación, así como la documentación a presentar para la justificación de la ayuda. Asimismo, en caso de necesitar ayuda, tienes un listado con los números de teléfono y los correos electrónicos de cada departamento.



NOLA ESKATU DIRULAGUNTZAK ELEKTRONIKOKI

CÓMO SOLICITAR LAS SUBVENCIONES TELEMÁTICAMENTE

Eskaerak era telematikoa egiteko, lehenik eta behin, BakQ ziurtagiria behar da; horregatik, BakQ-a nola eskuratu azaltzen duen gida eta bideo tutoriala sortu dira.

BakQ bidez elektronikoki edozein kontsulta eta tramite egin daiteke administrazio publikoko zerbitzuetan. Aurrez aurre eska daiteke arreta guneetan (Udate, KZgunea...).

Beharrezkoa da helbide elektronikoa izatea, telefono mugikorra edukitzea eta 16 urte baino gehiago izatea.

Behin BakQ-a eskuratuta, edozein izapide egin dezakezu telematikoki, eta dirulaguntzak ere eskatu ahal izango dituzu udal webgunearen bidez.

Para solicitar las subvenciones de forma telemática, es necesario tener el BakQ. El Ayuntamiento ha creado una guía y un vídeo tutorial para explicar cómo solicitar el BakQ y cómo pedir las subvenciones de manera telemática.

Azalpen guztiak urratsez urrats

Todas las explicaciones paso a paso



BIDEO TUTORIALA

eus



VÍDEO TUTORIAL

cas



BakQ

Eskatu ezazu zurea UDATEn
Solicita el tuyo en UDATE

UDATE:

Plaza Zaharra, 6A
T: 943 65 44 66
Desde Tolosa 010

Astelehenetik asteazkenera

De lunes a miércoles: 07:15 - 14:15
Osteguna / Jueves: 07:15 - 19:00
Ostirala / Viernes: 08:15 - 14:15

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA SENDOTUZ



Kalitatezko zerbitzu eraginkorra bermatzea ardatz

Apuesta por reforzar el servicio de ayuda a domicilio

Gaur egun, Tolosako etxez etxe laguntza zerbitzuak 160 erabiltzaile inguru ditu, eta funtsezkoa da egoera zaurgarrian edo mendekotasun egoeran dauden pertsona eta horien senide askorentzat.

Udalaren helburua da zerbitzua indartzea, erabiltzaile gehiagorengana edo denbora gehiago iritsi ahal izateko. Hala, kontratu berriak hiru urteko iraupena izango du, eta Udalak nabarmen handituko du diru ekarpena, esan bezala, erabiltzaileei haien beharretara egokitutako kalitatezko zerbitzu eraginkorra eta iraunkorra eskaini eta bermatzeko.

> %40 GEHIAGO (500.000€)

Urteko aurrekontua 1.766.107 eurokoa izango da, eta hiru urteetako balio zenbatetsia, 6,6 milioi eurokoa.

> ORDU KOPURU HANDIAGOA

Zerbitzuaren ordu kopurua ere igo egingo da, orain arteko 44.000tik 55.000 ordura.

Langileen lan baldintzak hobetu dira

Langileek eta gaur egun zerbitzua kudeatzen duen enpresak adostasuna lortu dute, lan hitzarmena sinatzeko. Horri esker, Udalak baldintzak jarri ditu hitzarmen horretan, eta hiru urteetarako aurreikusten den langileen oinarritzko soldata % 28 igoko da.

El Ayuntamiento de Tolosa ha reforzado el servicio de atención domiciliaria con 500.000 euros y 11.000 horas anuales más con el fin de ofrecer un servicio de calidad que llegue a más personas usuarias y de forma más prolongada.

Este cambio en la licitación ha permitido la firma de un nuevo convenio entre la empresa y el personal, que recoge un incremento de su salario base de un 18%.

- > 11.000 zerbitzu-ordu gehiago
- > +500.000 €/urteko
- > 11.000 horas más de servicio
- > +500.000 €/año

PINTAKETEN GARBIKETA ALDE ZAHARREAN, ETA EUSKAL HERRIA PLAZAN ETA INGURUETAN

¿Cómo y por qué se efectuará la limpieza de pintadas en la Parte Vieja?

T

olosako Udalak hirigune historikoko eta Euskal Herria plazako eta haren inguruetak kaleetan bide publikoan dauden eraikin pribatu-tuetako fatxadetan pintaketak garbituko ditu datozen hilabeteotan.

Garbiketarako bizilagunen aspaldiko eskariari erantzuten dio, baina Udalak, pintaketa horien zein herrian sakabanatuta dauden beste hainbesteren kontziente den arren, ez du eremu pribatua halako esku-hartze bat egiteko inolako eskumenik; hau da, nahi izanagatik ere, ezingo luke horrelako lanik egin, salbuespen kasuetan izan ezik (esaterako, iraingarriak diren pintaketetan). Horiek gaur egun garbitzen ditu, eta hala egiten jarraituko du.

Zergatik, beraz, Alde Zaharrean?

Ondarearen babes ikuspegitik legoke justifikatuta esku hartze hori. Eusko Jaurlaritzak 1995. urtean *monumentu multzo* izendatu zuen Tolosako Alde Zaharra, osorik; beraz, juridikoki, babestu beharreko ondare arkitektonikoa da, eta ez jabetza pribatua.

Hala eta guztiz ere, bi baldintza nagusi izango dira Udalak lan hori egin ahal izateko: alde batetik, jabeek baimena eman beharko dute; bestetik, modu antolatuan eta errepikatuan agertzen direnak garbituko dira.

Zein pintaketa garbituko dira?

Eraikinaren edota materialen ezaugarrien arabera, egin beharreko lana ezberdina izango da: batzuetan pintaketa ezabatzeko garbiketa lanak egingo dira, eta hori posible ez denean, gaintik margotuko da.

Gainera, ezingo dira detektatutako guztiak garbitu, garbiketarako osagai batzuek kalteak eragin ditzaketelako gainazal batzuetan: erakusleihoak, burdin hesiak, arotzeria, egurrezko elementu eta beste gainazal delikatuak... Era berean, ez dira zerbitzu honen barruan sartuko patioak, garajeetarako edo atarietarako sarbideak eta titulartasun pribatuko beste leku batzuk.

Alde Zaharretik kanpoko pintaketekin zer?

Udala kontziente da mota askotako pintaketa ugari dagoela herrian zehar sakabanatuta, baina, une honetan, Alde Zaharrean daudenak soilik garbitzeko bide administratiboa topatu du, esan bezala, ondare-aren babesean oinarrituta. Edozein kasutan, Alde Zaharretik kanpo dauden pintaketa horiek garbitzeko moduak aztertzen jarraituko du.

Durante los próximos meses, el Ayuntamiento limpiará las pintadas de las fachadas de los edificios privados situados en la vía pública del casco histórico, en la plaza Euskal Herria y sus calles colindantes. Esta será una intervención justificada desde el punto de vista de protección del patrimonio. Sin embargo, más allá de la Parte Vieja, el ayuntamiento no tiene ninguna competencia para realizar este tipo de intervención, por lo que seguirá estudiando la manera de poder limpiar las distintas pintadas ubicadas a lo largo y ancho del municipio.



AZKEN BERRIAK

Actualidad

GIZARTE ZERBITZUAK ARANBURU JAUREGIRA LEKUALDATU DIRA

Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzuen bulegoetan espazioa berregokitzeko lanak egingo ditu Udalak. Hori dela eta, une honetan, Gizarte Zerbitzuak Aranburu Jauregian ematen ari dira arreta. Lanak amaitu bitarte emango da bertan zerbitzua, aurreikuspenen arabera, ia urte amaierara bitarte.

La oficina de Servicios Sociales del Ayuntamiento se ha trasladado a Aranburu Jauregia con motivo de las obras de mejora que se acometerán, a partir de septiembre, en su espacio habitual. El servicio, por tanto, ya se presta en Aranburu Jauregia y lo hará en este lugar hasta la finalización de las obras, previsiblemente hasta casi final de año.

Gizarte Zerbitzuetako arreta, espazioa, baliabideak eta azpiegiturak hobetzeko lanak

Azken urteotan Gizarte Zerbitzuetako lantaldea handitu egin da, eta horrek lan espazioa berrantolatzea eskatzen du, behar berrietara egokitzeko eta herritarrei arreta egokia emateko. Irailean hasiko diren obra horiei esker, arretarako bulego berriak egokitzeaz gain, bilera gela berreskuratuko da, eta itxarongela eta komunak berrituko dira, irisgarritasuna bermatzeko neurri guztiekin.



UDALEKO EUSKARA PLANA, ONARTUA

Ekaineko osoko bilkuran, Tolosako Udaltzaren aho batez onartu zituen Euskararen Erabilera Normalizatzeko 2024-2027 Plana eta Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak. Hala, egungo errealitatea hobeto ezagututa eta hobetzeko alorrak identifikatuta, plan honen helburua da ahulguneak indartzea, euskararen erabilera beste jauzi bat emateko.

Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideek, halaber, printzipio gidariak, eta kudeaketarako, zerbitzurako eta lanerako hizkuntza irizpideak finkatzen dituzte, baita komunikazio korporatiboko, ekitaldi publikoetako, eta itzulpen eta zuzenketetako irizpideak ere.

El pasado mes de junio, el pleno municipal aprobaba por unanimidad el Plan de Normalización del uso del Euskera 2024-2027, un Plan que pretende ser un hito para, una vez identificadas las fortalezas y debilidades actuales, mejorar y reforzar los puntos débiles. Junto con el Plan, también se aprobaron los criterios de uso de las lenguas oficiales, que establece los principios rectores, criterios lingüísticos de gestión, servicio y trabajo, así como criterios de comunicación corporativa, eventos públicos y traducciones y correcciones.

TOLOSA TENTSIO HANDIKO ETXEBIZITZA EREMU IZENDATZEKO BIDEAN

Tolosako Udalak martxan jarri du udalerrri osoa Bizitegi Merkatuko Tentsio Eremu izendatu ahal izateko prozedura, merkatuan esku hartu eta tentsio hori arintzeko helburuarekin.

Udalerrri batek izendapen hori jasotzeko ondorengo bi irizpideetako bat bete behar du: batetik, etxebizitzaren alokairu edo erosketaren prezioen azken bost urteetako hazkundea erkidegoko KPI metatua baino hiru puntu altuagoa izatea; bestetik, hipoteka/alokairu eta oinarritzako hornidura gastuek familien batez besteko errentaren % 30 gainditzea. Tolosak irizpide biak betetzen ditu.

Une honetan, IKEI Research & Consultancy S.A. enpresa ari da Eusko Jaur-

laritzako Etxebizitza Sailari aurkeztu beharreko dokumentazioa osatzen. Behin hori aurkeztu eta onarpena jasota, Udalak tresna gehiago izango ditu eskura etxebizitza merkatuan eragiteko, adibidez eta besteak beste, alokairuaren prezioak izoztuz.

El Ayuntamiento de Tolosa ha puesto en marcha el procedimiento para que el municipio pueda ser declarado Zona de Mercado Residencial Tensionado, con el objetivo de poder intervenir en el mercado para mitigar la situación en la medida de lo posible.



BOST PARKE BERRITU, ETA BI KALISTENIA GUNE BERRI SORTUKO DITU UDALAK

Datozen asteotan, herriko bost haur parke berritzeko edo egokitzeko lanak egingo ditu Udalak, eta bi kalistenia gune sortuko ditu.

Bost parketan egingo dira lanak: Emeterio Arreseko jolastokian, lur guztia berrituko da; Lurramediniko jolastokian, aisialdiko gune bat sortuko da; Larramedin, haur parkea osatuko duen gune berria sortuko da, parte-hartze bidezko aurrekontuetan bozkaturakoaren arabera; eta Samaniegoko ikastetxe Haur Hezkuntzako eraikineko eta Aldaba auzoko parkeetan egokitzapenak egingo dira.

Horrez gain, kalistenia gune berriak sortuko dira Zumardiaundian eta Norvegiarren lorategietan.



Durante las próximas semanas, el ayuntamiento acometerá obras de mejora en varios parques infantiles de la localidad. Entre dichos espacios se encuentran los parques infantiles de Emeterio Arrese, Lurramedin, Larramedin, Aldaba y Samaniego. Además de ello, creará dos nuevos espacios de calistenia en Zumardiaundia y Norvegiarren lorategia.

TRIBUNA

Alderdien iritzia



eh
bildu

Zaintza indartzuz

Alekaren aurreko alean zaintza sistema eraldatzeko dugun erronka izan nuen hizpide. Bada, gutxinaka, ari gara norabide horretan urrats sendoak ematen.

Aldizkari honetan jaso dugun bezala, etxez etxeko laguntza zerbitzuaren lizitazio berria onartu berri dugu. Esfortzu handia egingo du udalak, 500.000€ gehiago bideratuko baititu.

Hala eta guztiz ere, urrats garrantzitsua izan da, alde batetik, zerbitzua bera indartuko delako: erabiltzaile gehiagok jaso ahal izango dute, edo egungoek ordu gehiagoz. Bestetik, aldaketak balio izan du zerbitzua ematen duten langileen lan baldintzak hobetu daitezten. Eta bazegoen horretarako beharra. Erabaki hau denontzako mesedegarri izango delakoan nago.

Bestalde, martxan jartzear gara zaintza ekosistemaren diagnostikoa egiteko azterketa. Horixe zen hartutako konpromisoetako bat. Zaintza sistema indartzeko bidean oinarriak finkatzeko baliagarria izango da. Su moteleko lanak, emango ditu fruitu gehiago.



ej
pnv

Erabakiak hartzeko garaia da

Honako esaldi honekin amaitu nuen aurrekoan: gaur garena, iraganean hartu genituen erabakien ondorio da; eta etorkizunean izango garena, gaur hartzen ditugun (edo hartzen ez ditugun) erabakien emaitza izango da.

Urtebete pasa da jada Udal Gobernu aldaketa izan genuela eta oraindik ez dakigu zer egin nahi duen EH Bilduko Udal Gobernuak orain urtebete pil-pilean egon ziren gai askorekin. Zein da Zumardi Txikiari eskaini nahi dioten bideorria eta non daude aparkalekuen gaiari erantzun bat emateko edota tokiko merkataritza sustatzeko proposamen zehatz horiek?

Estamos de acuerdo en la relevancia de la participación ciudadana; pero no compartimos la dinámica de escudarse en múltiples mesas y procesos de participación para dilatar decisiones en el tiempo o delegar en otros responsabilidades que son del Gobierno Municipal. Tolosa necesita más decisiones y menos análisis que nos lleven a la parálisis.

¡Que el reciente fuego de San Juan nos haya dado lucidez hasta el próximo solsticio de verano!



PSE-EE
PSOE

Tolosak etxebizitza-premia handia du, eta etxebizitza berriak eraikitzeko geratzen zaigun espazio bakarra San Esteban da. Beraz, aterako den proiektua errealista eta arrazoikoa ez bada, jai daukagu.

San Estebaneko bizilagunek ezin dute jarraitu egungo baldintzak dituen auzoarekin: urte asko abandonatuta, zentrotik oso gertu egon arren. Eta lantegi zahar eta lursail guztien jabeek ezin dute beste 20 urte itxaron beste plan partzialaren erreforma bat egin behar dela esateko.

Gaur egun eskaintzen dituen zerbitzuekin, Feriela ez da finkatutzat jo behar. Garapen urbanistiko eta estetikoari dagokionez, etorkizuneko San Esteban auzoaren hirigintzagarapena negatiboki erabat baldintzatuko duen eraikina da. Bonberearentzat beste espazio bat bilatzea ezinbestekoa izango da.

San Esteban berrian, Ferialeko espazioan eta ondoko aparkalekuan, Udalak ekimena har dezake, Udala bera izan daiteke auzoaren erreformaren eragile eta bultzatzaile nagusia, etxebizitza sozialak eta garajeak eraikiz.

San Esteban es el único espacio que nos queda para hacer frente a la escasez de vivienda. Si el nuevo proyecto vuelve a ser inviable, a las nuevas generaciones no les quedará más salida que marcharse de Tolosa.

AGENDA

Agenda osoa ikusgai: agenda.tolosa.eus

ABUZTUAK 12

Matías Sagreras
(Organo kontzertua)
20:00etan,
Andre Maria parrokian

ABUZTUAK 23

Welcome & Sorry
(Antzerkia, publiko guztientzat)
19:30etan, Larramendin

ABUZTUAK 30

The Donkey Riders.
(Jon Aira, Martí Elias eta Iker Piris. Musika)
20:00etan, San Frantzisko pasealekuan - Txurreria

IRAILAK 1

Ztandap, binakako elkarriketak.
(Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai)
18:00etan, Aldaban

IRAILAK 7

Grimm Anaien Parkea.
(Erre produkzioak. Ikuskizun familiarra)
18:00etan, Bedaion

IRAILAK 14

Kalakan.
(Musika)
18:00etan, Urkizun

ADI!
Udazkeneko kultur egitaraua izango dugu aurki.
Kontsultatu tolosa.eus webgunean.

Editorea: Tolosako Udala
Diseinu eta maketazioa: Dosges
Inprimaketa: Gráficas Ibarra
D.L.: SS-340/06

Kontsultatu
Alekaren edukia
zeinu hizkuntzan:

Consulta el contenido
de Aleka en
lenguaje de signos:

HEMEN! >



KULTURA PLAZARA

IRAILAK 27 · 28 · 29 | ZUMARDIAUNDIA | TOLOSA | 2024

MIKEL URDANGARIN
BELAKO · JANUS LESTER
MUGAN · ALURR
AMAIA ELIZARAN & NEONIMUS
TOLOSALDEKO SORTZAILEEN AZOKA